

LENE KANTAK

# EMOZIO FESTA!





## HAURRENTZAKO MUSIKA ETA DANTZA EUSKARAZ

10 urte baina gehiago pasa dira Ene Kantak ekimena sortu zenetik; bai, bai, seguraski zu ez zinen oraindik jaio, baina gure seme-alabak bai. Beraientzako kantuak egiteko gogoaz piztu zitzaigun: ze demontre, abestiez gain, hauek dantzatzeko pausu edo koreografiak ere bai! Gure bideoetan dantzatzea gustuko dugula nabaritu duzu, ezta? Trebe-trebeak, eta batez ere, zeinen ongi pasatzen dugun.

Musika, dantza, euskara eta irudia: zer gehiago behar zen? Bada, abesti hauek argitaratzea, eta euskarari bultzada emateko, jende ospetsuaren parte-hartzea: horrela errazago emango zen ezagutzera Ene Kantak, eta jende gehiagoren etxeetara iritsiko zen gure musika. Imaginatu al zenituzten inoiz, Ene Kantak sortu aurretik, kirolariak, bertsolariak, idazleak, edo musikariak jo ta ke umeentzako dantzan? Hori lortu du Ene Kantak-ek, hori lortu du euskarak, eta hori lortu duzue zuek, etxeko txikiek. Dagoeneko 8 disko kaleratu ditugu urte hauetan, eta seguraski emanaldiren batean ikusi gaituzu; Eneko, Nerea, Satorjator eta Astonauta herri askotan aritu gara emanaldiak egiten. Zurean oraindik ez? Agian egun hori iritsiko da! Eta zure herrian ez bada, areto handi batean ea elkar ikusten dugun.

Zein dira Ene Kantakeko abestien artean gehien gustatzen zaizkizun abestiak? Naturaren zaintzari buruzkoak? Ohiturei buruzkoak? Animaliei buruzkoak? Adiskidetasunari buruzkoak? Gorputza lantzen dituztenak? Agian... jolasteko direnak? Erraldoienak? Hainbeste daude... Eta egongo direnak!

Gure gogokoenak Astonauta, erraldoienak, Perez sagutxoa, Birziklatzearena eta Glu eta Glu dira. Ez galdetu zergatik, gu dantzan hasten gara eta kitto.

[www.enekantak.org](http://www.enekantak.org)



# EMOZIO FESTA!

## SINOPSISIA

Eneko eta Nerea eskolara itzuli dira, abentura berri batean murgilduko dira. Oraingo honetan, eskolako 1. eguna izango dute oinarritzat. Egun horretan, denak urduri daude: gurasoak, irakasleak, eta nola ez; gure bi lagunak. Askok ez dakite egoera horretan sortzen diren emozioak kudeatzen: beldurra, urduritasuna, poztasuna...

Egun berezi honetan, udan ikusi ez dituzten lagunak topatuko dituzte berriz, eta oraingoan, gure bi protagonistek, ikasle berri bat ezagutuko dute; eta ez edonolakoa: honek, denak ikaratuko ditu, eta gure lagunek, aurre egin behar-ko diote egoera zail eta berri honi.

Gainera, Enekok lagunei azaldu behar-ko die zeliakoa dela. Nola esango die? Zer suposatzen du horrek gelan? Irri egingo diote?

Musikaz, dantzaz eta irriz betetako abentura berri honetan, ikusleak, emozioetan murgilduko dira. Emozio hauek guztiak, beharrezkoak dira bi-zitzan eta saiatuko gara erakusten, nola kudeatu emozio horiek. Honen harira, saiatuko gara ere gure ikuslegoari erakusten, egoera zailei, nola aurre egin.

Eszenatokia, gure eskola bihurtuko dugu eta bertan pasarte dibertigarriak eta dantzarriak biziko ditugu.

Ez dira faltako Enekoaren eta Nerearen irriak eta bihurrikeriak. Oso ongi pasako dugu eta gainera, gure sabelean sortzen diren kilima edo nahasmen hori, ulertuko dugu; nola ez, beti ahoan irrifarrea izanik.

Ez galdu abentura hau, ezingo zara eserlekuan geldirik egon. Gozatu, dantzatu, irri egin eta asko ikasi Ene kankaren ikuskizun paregabe honekin.



# TXANTREAKO KONPARTSA

- 4 ERRALDOIA ETA 4 KILIKI
- ERRALDOIEN ALTUERA MAXIMOA: 4.50m.
- ZEHAZTU KASU BAKOITZEAN NOLA IGO ESZENATOKIRA ETA NON EZKUTATU EKITALDIAN ATERA ARTE

ALTUERA  
4.50m.



# EMOZIO FESTA!

- Izenburua: Emozio Festa!
  - Hizkuntza: Euskara
- 2 urtetik gorako haurrei zuzenduta
- Ikuskizunaren iraupena: 80 minutu
  
- Zuzendaritza: Urko Oskoz
- Aktoreak: Oiane Yarza, Urko Oskoz, Xabi Akerreta, Uxue Rodriguez eta Aitziber Fernandez
- Musika: Nerea Urbizu eta Urko Oskoz
  
- Koreografiak: Oiane Yarza, Nerea Urbizu eta Urko Oskoz
  - Argien Diseinua: Oskar Valoria
  - Soinu Diseinua: Roberto Irisarri
- Bisualak: Jorge Fernandez, Alatzne Portu, Jon Manterola eta Edurne Sanzo
  - Ilustrazioak: Mikel Santos "Belatz"
    - Jantziak: Maitane Bandres
    - Produkzioa: Jesús Irujo
    - Webgunea: Mikel Mendibil
  
- Kontratazioa: Fermin Sarasa - [antzzeria@enekantak.org](mailto:antzzeria@enekantak.org)



# EMOZIO FESTA!

Kontratazioa: [antzerkia@enekantak.org](mailto:antzerkia@enekantak.org)

Informazioa: [kaixo@enekantak.org](mailto:kaixo@enekantak.org)

[www.enekantak.org](http://www.enekantak.org)

[www.facebook.com/enekantak](https://www.facebook.com/enekantak)

[www.youtube.com/enekantak](https://www.youtube.com/enekantak)

[www.instagram.com/enekantak](https://www.instagram.com/enekantak)

[www.twitter.com/enekantak](https://www.twitter.com/enekantak)

**BAT EGIN GUREKIN!**

**GORA  
EUSKARA!**

